

*Paco Cascón  
Soriano*

## ***“Hezkuntza da mundua aldatzeko armarik indartsuena”***

Nelson Mandela

### **SARRERA**

Eskuartean duzu “GATAZKAN ETA GATAZKARAKO HEZI” izeneko dokumentua, Paco Cascón Soriano idatzia eta 2001. urtean UNESCOk argitaratua. Jadanik hainbat hizkuntzataraz itzulita dago: katalanera, ingelesera eta frantsesera, besteak beste; baina euskarara ez. Ekarpen oso interesgarria dela gogoan izanik, itzultzeari ekin diot –itzultzaile ez naizen arren–, geuk ere euskaraz izan dezagun.

Paco Cascón Soriano ibilbide luzeko aditua da hiru arlotan bereziki: Bake Hezkuntzan, giza eskubideen aldarrikapenean eta gatazken konponbide ez-bortitzean. Egun, UNESCOko katedraduna izateaz gain, irakasle, hizlari, idazle eta gatazketan aholkulari-lanetan aritu eta aritzen da (Estatuan eta Hego Amerikan). Haren curriculum zabala frogatzearen, nahikoa da honako helbide honetan begiratzea: [pacoc.pangea.org/documentos/](http://pacoc.pangea.org/documentos/) (bertan topatuko duzu, bidenabar, berak idatzitako hainbat liburu eta artikulu). Aipatu beharra dago, bestalde, hemengo erkidegoko ikastetxe askorekin eta Berritzegunekin daukan lotura berezia. Azkeneko urteetan, Garatu eta Prest Gara programen barruan ikastaro trinkoak eskaini ditu, eta hainbat eskola eta institututan irakasleentzako formazio-saioak egin ditu. Gaur egun, hainbat ikastetxetan aski ezagun eta erabiliak dira haren *Jolasaren alternatiba* izeneko liburuak (EDUPAZ bilduma, Los libros de la Catarata argitaletxekoa).

Egun, gizartean, arlo sozial zein pertsonalean, funtseko helburua da bidezko bakea; gerra ez ezik, diskriminazioa, biolentzia eta zapalkuntza gaitzesten duen bakea, pertsona ororen duintasuna errespetatzen eta bermatzen duena giza eskubideak oinarri. Beraz, bakebidean, nahitaezkoa da gatazken konponbide baketsu eta zuzena. Helburu horretan, hezitzaileentzat oso interesgarria da Cascónen ekarpena, irakasleen eguneroko lanean oso lagungarria baita.

Hemen eskaintzen zaizuna P. Casconen oinarri teorikoaren atal bat da. Haren ustez, gaur egun Bake Hezkuntza gatazken konponbidearen arloan ardaztu behar da bereziki. Kontuan harturik gatazka gizartearen ezaugarri bat dela eta, ondorioz, eguneroko bizitzatik saihestezina, hark gatazkaren ikuspegi positiboa ematen digu txostenean. Haren iritziz, norberaren garapenerako nahiz gizarte bidezkoago baten alde egiteko, beharrezkoa da gatazkari era egokian aurre egiten jakitea. Eta hori lantze aldera, gatazka motak eta haien

aurrean har litezkeen jarrerak aztertu eta konponbide ez-bortitzak emateko landu beharreko trebetasunak jorratzen ditu. Elkarrekiko ezagutza eta konfiantza, komunikazio eraginkorra eta kooperazioa dira, besteak beste, ikasleekin lantzeko hark proposaturiko arloak. Horrez gain, gatazken azterketa egiteko pistak ere ematen ditu txostenean, eta, haren bukaeran, bitartekaritzari buruz ere luze eta sakon jarduten du. Bidezko bizikidetzak bultzatu nahi badugu, beraz, eskolan eta eskolatik kanpo, funtsezkoa dugu ikasleekin gai horiek lantzea eta haurrak gatazken konponbidean hezteko, betiere haien autonomia eta erantzukizuna bultzatuz. Horrek guztiak, jakina, egundoko aldaketak eskatzen ditu eskolan, bai metodologian, bai antolaketan; eta horiek nahitaez egin behar dira, baldin eta haurrak giza balio eta balio demokratikoetan hezi nahi baditugu, behintzat.

Ene lana itzulpena baino ez da izan. Jatorrizko testua nahiko trinkoa izanda, argitze aldera, hainbat moldaketa egin ditut formatuan; gutxitan, ezen, gehienetan, itzulpenaren zehaztasuna bilatzen saiatu bainaiz, forman zein mamian. Lortu al dut haren ideiak zuzen, argi eta egoki ematen? Hori zuk zeuk esan beharko duzu, irakurle. Eta, testua hobetzen laguntze aldera, guri igorri zure azken hitza, zeren zure iritzi eta ekarpenak beti baitira beharrezko.

Sarrera hau ezin dut bukatu eskertu gabe, alde batetik, Paco Cascónek bere idatzia euskaratzeko adierazitako interesa eta emandako erraztasunak, eta, bestetik, Donostiako IRALEK itzulpen-lanetan eskainitako laguntza eta aholkularitza.

ITZULTZAILEA

# AURKIBIDEA

1. GATAZKAN ETA GATAZKARAKO HEZI .....	4
2. GATAZKAREN IKUSPEGI BAIKORRRA .....	6
2. 1. Gatazka vs Indarkeria .....	8
2. 2. Gatazka prozesu bat da .....	10
2. 3. Gatazkarekiko jarrerak .....	11
2. 4. Esku hartzeko erak .....	14
3. PREBENTZIOA .....	16
4. AZTERKETA ETA NEGOZIAZIOA .....	21
4. 1. Pertsona-prozesua-arazoa bereizi .....	22
4. 2. Konponbideak bilatu .....	26
4. 3. Metodologia .....	27
5. BITARTEKARITZA .....	28
5. 1. Neutraltasuna dela eta ez dela .....	29
5. 2. Bitartekaritza-prozesua .....	30
5. 3. Bitartekaritzarako eremu hezitzaileak .....	33
6. BIBLIOGRAFIA ETA WEBGUNEAK .....	35

## GATAZKAN ETA GATAZKARAKO HEZI

Azken urteetan gero eta sarriago, gatazkaren konponbide ez-bortitzaren heziketa du ardatz Bake Hezkuntzak. Horren arrazoi nagusiak honako hauek dira:

– Batetik, gobernuz kanpoko eta bestelako hainbat erakunde Bake Hezkuntzari zegozkion eta dagozkion hainbat gai sakonki jorratzen aritzea (hezkidetzak, garapenerako hezkuntza, ekologia, etab.).

– Bestetik, Bake Hezkuntzak berariazkoa du indarkeriarik gabeko gatazta-konponbidea, bertan jorratzen baitira, era positiboan, hezkuntzako gaiak. Gainera, jarrera ez-bortitzak aportazio berriak egin ditzake, bakea “gerrarik ez” edo “gatazkarik ez” bezala ulertzen duten korronteetatik aldentuta.

Gatazkari aurre egiteko indarkeria zuzena gaitzesten da, baina ez dira bestelako aukerak ezagutzen. Horrela, indarkeria da gatazkari irtenbidea emateko ohiko modua, eta, maiz, sumisio eta ihes egiteko jarrerak nagusitzen dira.

Horregatik, Bake Hezkuntzaren erronka nagusia gatazkan bizitzen erakustea eta gatazkarako hezteak izango da. Honako gai hauek hartzen dira, batik bat, kontuan:

**1. Gatazkari ikuspuntu positiboa ematea:** hau da, gatazka, justizia handiagoa lortzeko bidean, gizartea eta giza harremanak eraldatzeko modu bat dela ulertzea; aukera hezitzaile gisa hartzea, bestelako harreman motak eraikitzen ikasteko, eta, halaber, bizitzarako prestatzea, bakoitzari dagozkion eskubideak indarkeriarik gabe aldarrikatzen eta errespetarazten norberak ikas dezan.

**2. Gatazka aztertzen ikastea eta haien konplexutasunaz jabetzea:** irakasle, familia zein ikasleei jarraibideak eskaintzea, egunerokoan sortzen diren gatazkei aurre egiteko eta konponbidea bilatzeko.

**3. Interbideak aurkitzea:** gatazka konponbide ez-bortitzaren bidez konpontzeko eraginkorrak izango diren irtenbideak ematea; hau da, “beste aldekoa” suntsitu gabe kemena izan, gure beharrak ase eta guztiok irabazle izango garen konponbideak abian jartzea; horretarako, lagungarri izango zaigu indarkeriarik gabeko agresibitatea eta

asertibitatea –geureari eustea biolentzia erabili gabe– garatzea, eta norberaren zein besteen boterearen oinarriak ezagutzea.

Gatazkarako hezteak gatazka aztertzen eta konpontzen ikastea esan nahi du. Ikasketa hori baliagarria da, era berean, hurbileko gatazketarako (pertsoneko artekoak, gelakoak, etxeakoak, auzokoak...) eta baita gatazka “handietarako” ere (sozialak, nazioartekoak...).

Mende honetan, gatazkek bidezko eran eta konponbide ez-bortitzak erabiliz konpontzen/bideratzen ikastea berebiziko erronka da. Bake Hezkuntzak ekarpenak egin ditzake, baina, lehenik eta behin, zer ulertzen dugu “gatazka” hitza aipatzen dugunean?

## **GAZTAZKAREN IKUSPEGI BAIKORRA**

Orokorrean, gatazka hitza aipatzen dugunean, zerbait negatiboa eta kaltegarria irudikatzen dugu eta, beraz, sahiestu beharrekoa. Ikuspegi hori hainbat arrazoitan oinarrituta dago:

– Gatazka bera eta gatazkaren konponbidean normalean erabiltzen diren estrategiak nahasten ditugu. Gatazka hitza entzun orduko, berehala indarkeria edota alde bateko suntsiketa eta ezeztapena etortzen zaigu gogora. Ez dugu gatazka lotzen irtenbide justu eta bi aldeetarako betegarria, zuzena edota egokia izan daitekeen prozesu batekin. Izan ere, zalantzarik gabe, txiki-txikitatik jaso ditugu horrelako eredu ugari (haurrentzako telebistako serieak, filmak, ipuin eta jolasak...).

– Dakigunez, gatazka bati aurre egiteak indarra eta denbora eskatzen digu, eta gainera, atseginak ez diren egoerak sortzen dira.

– Gehienok —irakasle eta hezitzaileak barne— gatazkari era positiboan aurre egiteko hezi gabe gaudela sentitzen dugu, eta baliabide falta sumatzen dugu. Bestalde, Pegagogia eta Hezkuntza Zientzietako fakultateetako curriculumetan oraindik ere ez da jorratzen gatazka-konponbidearen arloa.

– Aldaketari beldurra diogu. Nahiz eta jakin egoera ez dela zuzena, askotan nahiago izaten dugu dagoena mantendu eraldatze-prozesu batek dituen arriskuak hartu baino.

Halere, gure ustez, giza harremanek berezko dute gatazka. Bizitzea harremanetan aritzea da, gurekin ados ez daudenekin eta bestelako behar edota interesak dituztekin. Gainera, gatazka **sahietsezina** da. Guk ez ikusiarena egin dezakegu, baina, halere, gatazkak bere dinamika jarraituko du. Izaki biziduna balitz bezala, gero eta handiago eta erabilgaitzago bihurtuko da.

Areago oraindik, gatazka gure ikuspuntutik positiboa da. Ideia hori azaltzeko argudio ugari dago, baina hiru nabarmenduko ditugu:

**1.** Gure ustez, aniztasuna eta desberdintasuna berebiziko balioak dira. Gure mundua bakarra eta plurala da. Aniztasuna, gizarteak berezko duenez, kooperazioarekin eta elkartasunarekin lotzen badugu, aberasgarria eta baliagarria izango da guztiontzat. Dena dela, aniztasun horretako elkarbizitzan aldeak agertzen dira, eta, horiekin batera, pentsamolde ezberdinak, liskarrak eta gatazkak.

**2.** Gure ustez, gizarte bidezkoago baterantz jo nahi badugu, nahitaez bidegabeko egiturekin eta horiek mantentzen dituzten ereduarekin talka egingo dugu. Hori kontuan izanik, bake-hezitzaileontzat gizartearen eradalketan aurrerapausoak ematea oinarritzko helburua denez, gatazka izango da bide horretan lagunduko gaituen baliabide nagusia.

**3.** Gure ustez, gatazka ikasteko aukera da. Arestian aipatu dugun moduan, giza harremanek bere-berezkoak dituzte gatazkak; beraz, gatazkak gainditzeko, funtsezkoa da esku-hartze zuzenak eta konponbideak ezagutzea. Eta, hala, eskola-eremuan sortzen diren gatazkak saihesteko ahaleginak egin beharrean edo beste aldera begiratu beharrean gatazkari ikasleekin batera heltzen badiogu, gatazka aztertu eta aurre egiten ikasteko aukerak zabalduko zaizkigu. Ikasleen artean gatazka egoki bideratzea lortzen dutenean, gusturago sentitzen dira adostutako erabakiarekin, eta gaitasun handiagoa izango dute etorkizunean gatazkak konpontzeko.

Hitz gutxitan esanda, gure erronka honako hau da: nola ikasi eta irakatsi gatazka konpontzen biolentziarik gabe eta jarrera eraikitzailea erabiliz. Ikasketa horrek dakar gatazka zer den jakitea, osagaiak ezagutzea, eta aldi berean, konponbideak bilatzeko jarrerak eta estrategiak garatzea. Konponbidea ez da arazoa kudeatzea, baizik eta

aurre egitea, gatazka eragin duten sakoneko sorburuak edota jatorriak aurkituz eta konponduz.

Kontuan hartuko dugu gatazka bati konponbidea emateak ez dakarrela berez ondoren beste gatazka (arazo) batzuk ez sortzea; bizitzak ondokoekin harremanetan jartzea eta ondokoekin garatzea dakar. Beraz, ibilbidean behin eta berriro agertuko zaizkigu gatazkak. Haiei aurre egiteko eta konponbidea aurkitzeko moduak aurrerapausoak edo atzerapausoak emateko aukera eskainiko digu.

Horrengatik guztiarengatik, Bake Hezkuntzan, gatazkaren ikuspegi baikor eta saihestezin hori izango da xede eta bide. Horrela, lan egingo dugu bai egunerokotasunean gertuen ditugun gatazkekin (pertsonek eta taldeen artekoak) bai gatazka orokorragoekin (sozialak, komunitateen artekoak, nazioartekoak...). Lehenengoi "mikrogatazka" esango diegu, eta besteei "makrogatazka".

Hezkuntzako lehenengo mailetan mikrogatazka eta pertsonen arteko gatazkak landuko ditugu bereziki, eta goiko mailetan –aurrekoak ahaztu gabe– gatazka sozialak eta nazioartekoak.

Argitu behar dugu helburu nagusia ez dela irakasleek ikasleen arteko gatazkak konpontzen ikastea, baizik eta ikasleak trebatzea haiek konpon ditzaten. Horrela, gatazka jalin bati ikasleen artean emandako eta adostutako irtenbidea, mementoko arrakasta izateaz gain, etorkizunerako eta egunerokotasunerako jakinbide bihurtuko da.

## **Gatazka vs indarkeria**

Gatazka eta indarkeria sinonimoak balira bezala hartu eta nahasteko joera dago. Horrengatik, egoera askotan indarkeriaren edozein adierazpen gatazkatzat hartzen denez, indarkeriarik eza gatazkarik gabekotzat edota egoera baketsutzat hartzen da. Gure ikuspuntutik, berriz, egoera bat ez dugu joko gatazkatzat azaleko adierazleengatik, eduki eta sakoneko arrazioengatik baizik.

Gure hasierako oinarritzko ideia honako hau da: edozein liskar edo desadostasun ez da gatazka. Ezdostasunak, normalean, eguneroko jardunaren egoerak izaten dira eta, bi



aldeak bat etorri ez arren, ez dago aurkako interes edota beharrizanik. Konponbidea, gehienetan, komunikazio eraginkorrak baliatuz, kontsentsu eta konpromiso zehatz eta egokiak hartzean datza.

Gatazka izango dugu, aldiz, liskarra eta desadostasuna agertzen direnean, baina interes, beharrizan edota balioak elkarren aurka. Elkarren aurkako kontrajartze horri **arazo** deritzogu, zeren alde batekoen beharrak asebetetzeak beste aldekoenak asebetetzea eragozten baitu. Beraz, batzuen nahi eta beharrek besteenak ukatzen dituztenean izango dugu gatazka. Horren arabera, sarritan gatazka errealekin nahasten diren bi egoera bereiziko ditugu: sasigatazkek eta gatazka latenteak.

**1. Sasigatazkan**, indarkeria-zantzuak edo liskar-giroa izan arren, ez dago arazorik, arestian eman dugun definizioa gogoan (sarritan bi aldeek bestelakoa pentsatzen badute ere). Oro har, gaizki-ulertuak, mesfidantza eta komunikazio falta izaten dira, baina horiek ez dira arazoak. Ez dago benetako eragozpenik bi aldeen interesak eta beharrak bete daitezzen. Elkarrekiko konfiantza sustatu eta komunikazioa hobetzea izango da aurrera egiteko modurik eraginkorrena.

**2. Gatazka latentean**, eskuarki, ez dugu liskarra edo indarkeria girorik. Nahiz eta interes, behar edota balio kontrajarriak izan, bi aldeek (edo aldeetako batek) kontzientzia edo indar faltagatik ez dute gatazka sumatzen, edo ez dira aurre egiteko gai. Gure egunerokotasunean, edo hezkuntza-esparruan, sarri hautematen dugu egoera batean noiz dagoen gatazka, baina liskarra edo indarkeria agertu ez bada, gatazka lehertu ez bada, ez diogu aurre egiten, ez diogu heltzen, ezta aintzat hartzen ere. Horren ondorioz, gatazka gero eta sakonagoa izango da, eta azkenean eztanda egingo du. Eta ohitura bihurtuko da mementorik txarrean aurre egitea, izugarri handitu denean, gatazka nondik heldu ez dakigunean eta harremanak, pertsonak eta abar desegin dituenan.

## Gatazka prozesu bat da

Gatazka ez da une bateko kontua, hiru fasetan garatzen den prozesua baizik. Hiru faseak hauek dira: **beharrizana, arazoa eta krisia**.

1. Lehen fasean, jatorria **beharrizanari** (biologikoari, ideologikoari edota ekonomikoari) lotuta dago. Beharrizan horiek aseturik daudenean –batzuenek zein besteenak elkarren aurka jotzen ez dutelako edo eragileen artean harreman kooperatzaile eta sinergikoa sustatu delako–, ez da **arazorik** izaten.
2. Bigarren fasean, **arazoa** agertuko da alde bateko beharrizanak beste aldekoarekin talka egiten duenean, antagonikoak bihurtzen ditugunean, alegia. Arazoari garaiz heltzen ez badiogu, gatazkaren dinamikan murgildu eta hainbait osagai gehituko dira, hala nola, mesfidantza, beldurra, inkomunikazioa, gaizki-  
ulertuak, etab.
3. Hirugarren fasean, arazoak eztanda egingo du noizbait, eta horri **krisia** esango diogu. Oro har, indarkeria-zantzuekin batera gertatzen denez, askok krisialdia eta gatazka berdintzat jotzen dituzte.

Gatazkari ekiteko ez da, haatik, krisiaren zain egon behar. Berez, krisialdia indarkeriarik gabe bideratzeko eta neurri sortzaileak erabiltzeko unerik okerrera da, are okerrago arazoari konponbideak ematen ikasten saiatzeko.

Krisialdian ez dugu izango gatazka era positiboan konpontzeko beharrezkoa den denbora, lasaitasuna eta distantzia. Ordurako, gatazka handitu, eta erabilgaitz bilakatuko da; gure gainera etorri, eta berehalako erantzuna eskatuko digu. Horrenbestez, ez dugu hausnarketarako betarik izango, ezingo ditugu gertatzen ari dena eta horren arrazoiak aztertu, ezingo ditugu errekurtsio eta konponbiderako aukerak bilatu, eta, nahiz eta gustuko ez izan eta egokia ez dela uste izan, usadioz erabili diren eredu berberak erabiliko ditugu.

Zenbaitetan, gerora ere ez dugu egiten beharrezko hausnarketa. Gatazkari heltzen hasteko eta konponbideak bilatzeko krisialdia sortu arte zain jarraitzen badugu, oso lan

nekeza egingo zaigu konponbidea; izan ere, gatazkak bezalaxe, denbora luze eraman dezakeen prozesua da.

Konponbidea, hortaz, lehenbailehen abian jar daitezkeen eta jarri behar den prozesua da, ez da arazoak desagerrazariko dituen ekimen puntuala. Konponbidearen bidean, aurretik prestatuak eta trebatuak izan behar dugu, neurri positibo eta eraikitzaileak ezagutu eta barneratu, eta, horrela, arazoak suertatzen direnean, erantzun zuzena emateko aukera gehiago izango dugu.

## **Gatazkarekiko jarrerak**

Gatazkan, konponbideari heltzeko, norberak eta gainontzekoek hartzen duten jarreraz jabetzea da lehenengo lana. Gatazkarekiko norberaren jarreraak aztertzen ditugunean, sarritan konturatzen gara ustekabeen gatazkari ihes egin edota jarrera eroso hartzen dugula. Eta, jakina, ondorioz, arazoak horrela ez dira konpontzen. Gauzak ongi egin nahi izanez gero, beste era batera jokatu beharra dago. Bost dira gatazkaren aurrean har daitezkeen jarrera nagusiak.

**1. Norgehiagoka (nik irabazi, zuk galdu).** Jarrera honetan garrantzia duena nik nahi dudan hori lortzea da, nire helburuak betetzea eta nahi dudan emaitza jasotzea. Ez du axola horretarako norbait zapaltzeak eta haren gainetik pasatzeak; harremanek ez dute baliorik. Zalantzarik gabe, lehiakortasunaren eredia da hori, muturrera eramanda. Funtsezkoena nik irabaztea izanik, besteak galtzea da errazena. Galtze horrekin, zenbaitetan, alde batekoek beren helburuak lortuko dituzte, baina beste aldekoak suntsituak edo ezabatuak izango dira; bestela esanda, horrela jokatzeak bestearen heriotza eta baliogabetzea dakar. Eskolaren esparruan bestea suntsitzeko ez dugu heriotza erabiltzen, baina bai eskusioa (bazterketa), diskriminazioa, mespretxua, kanporaketa, etab.

**2. Amore ematea (nik galdu, zuk irabazi).** Nahiz eta kontrakoa iruditu, oso zabaldua dagoen jarrera da, lehiakortasuna bezainbeste, edo are gehiago. Gatazka-egoeran ez diegu gure helburuei eusten, eta hainbatetan ez ditugu azaldu ere egiten beste aldekoari aurre ez egiteagatik. Sarritan, gure eskubideak aldarrikatzean sor daitezkeen


egonezin eta tentsioak gordetzea errespetuarekin eta heziketa onarekin nahasten dugu. Ondorioz, irauteko jarrera hartzen dugu gehiago ezin dugun arte, eta, orduan, geure burua edo beste aldean dagoena suntsitzen dugu.

**3. Ihes egitea (nik galdu, zuk galdu).** Helburuak ez dira betetzen eta harremanak hondatzen dira. Beldurra dela medio, gauzak berez konponduko direlakoan, ez diogu gatazkari aurre egiten, eta ezikusiarrena eta ezentzunaren egiten dugu. Aitzitik, arestian aipatu bezala, gatazkak berezko dinamika du eta, behin bere ibilbidea hasita, ez da berez geldituko.

**4. Kooperazioa (nik irabazi, zuk irabazi).** Egoera honetan gure helburuak lortzea oso garrantzitsua da, baita harremanak egoki mantentzea ere. Oso lotuta dago indarkeriarik gabeko filosofiaren oinarritzko ideiarekin: helburuak eta berori lortzeko bideak koherenteak izan behar dute. Horra begira bideratuko dugu prozesu hezitzailea (hezkuntza-prozesua). Denok irabaztea lortu behar dugu; “nik irabazi, zuk irabazi” da formula baliagarri bakarra. Halere, kooperatzea ez da egokitzea; guretzat funtsezkoari eta beharrezkoari ezin diogu ukorik egin. Amore eman gabe negoziatu daiteke, eta, funtsezko gaiez ari garenean, EZETZA ematen ikasi behar dugu.

**5. Negoziazioa.** Erabateko kooperazioan lan egitea oso zaila da. Bi aldeak ezin dira % 100ean irabazle izan, eta biak ala biak, oinarrian, irabazle izatea proposatzen da. Negoziazioaz ari direnean, zenbaitek ez du norgehiagoka-ereduaren taktika baino gogoan. Alde guztien oinarritzko helburuak lortu izana da negoziazioaren gako, osterantzean, ez da negoziazio-jarrerarik izango, eta, hala, lehiakortasun edota amore emateko jarrera nagusituko dena.

Ondorengo eskema honetan bost jarrera horiek irudikatuak daude ardatz kartesianoetan. Ardatz horizontalean, harremanei ematen zaien garrantzia agertzen da (0tik 10era), eta ardatz bertikalean, aldiz, helburuen lorpenari emandako balorazioa (0tik 10era). Bi faktore horien konbinaziotik etorriko dira gatazkei aurre egiteko aipatutako jarrerak eta kokapena grafikoan.



Normalean, goiko jarrera horiek ez dira izaten guttiz garbi eta osoak. Gure asmoa ez da adieraztea jarrera batzuk beti direla zuzenak eta besteak beti okerrak. Horren inguruko argibideak goiko eskeman aurki ditzakegu. Esku artean duguna ez bada guretzat oso garrantzitsua eta, bestea ia ezagutzen ez dugulako, harremana ahula bada, ihesbidea izango da, seguruenik, jarrera egokiena. Hau da, teorian okerra edo negatiboa iruditzen zaigun jarrera, egoera zein den, aukera onena izan liteke. Ia gai guztietan ekonomi-printzipioak daukan garrantzia aintzat hartu behar da. Gure energiak

mugatuak dira eta gatazkan murgiltzeak kemen handia eskatzen digu; beraz, zein gatazkatan murgilduko garen balioetsi behar dugu.

Halere, eskema horretan munta handiko beste gai bat ere agertzen zaigu: **helburuak eta harremana zenbat eta inportanteagoak izan, orduan eta garrantzitsuagoa da kooperatzen ikastea**. Egoera horretan, “nik irabazi, zuk galdu” edota “nik galdu, zuk irabazi” ereduak EZ DUTE BALIORIK izango epe ertain eta luzera begira, eta denok galtzaile izango garen egoerara abiaraziko gaituzte. Horren adibidea izan daiteke, esaterako, gehiengo estuz erabakiak hartzen dituen irakasle-klaustroa; galtzaile izan den taldea ez da gustura sentituko, eta, egoera hori maiz errepikatzen bada, eskuarki irakasle horiek ondorengo hauetako jarrera bat –zein baino zein okerragoa– hartuko dute: oztopoak jarri erabakitakoa gauzatu ez dadin edota gero eta gehiago aldendu ikastetxeko lan eta ardurak hartzetik.


Egun, alde askotatik entzuten den mezu bakarra lehiakortasuna da, eta ez norberaren gaitasunak garatzea; ahaztu egiten da kooperatzen ikastea dela bereziki landu behar den arlo garrantzitsuena. Eta, kooperazioa garatu nahi badugu, esparru guztietan eman behar ditugu aukerak eta aldaketak: ikasteko metodologian, jolas eta kirolean, motibatze moduetan...

Oro har, eta paradoxikoa bada ere, edozein gatazkatan aldean arteko nolabaiteko kooperazioa izaten da, baina elkar suntsitzeko asmoarekin. Funtsezkoa da ikastea ustez banakako estrategia onena talde-estrategiarik txarrena izan daitekeela. Gurekin gatazkan dabilen hori ez da zertan izan gure etsaia, eta alternatibarik onena, lehian ibiltzea baino, elkarlanean aritzea izan daiteke, gatazkaren konponbidea bi aldeentzat asegarri izan dadin. Gatazkako bi aldeek ikusi behar dute lankidetzan jardutea dela aukera onena, ez soilik ikuspegi etiko batetik, baita eraginkortasun-ikuspegitik ere. Horra hor berebiziko erronka!

## **Esku hartzeko erak**

Gatazkan hezteko eremuak bilatu beharko ditugu. Horietan, irakasleek zein ikasleek bere burua prestatuko dute gatazkari aurre egiteko, neurri sortzailegoak garatu eta asebetetze maila handiagoz konpontzeko.

Hezkuntza-eremuan eta horren inguruan sortzen diren gatazkekin lan egiteko asmoa dugu. Esana dugu ez garela zain egongo gatazka lehertuko den unera arte; hasierako urratsetan esku hartuko dugu; ahal dela, sortu baino lehen. Horrela, denbora izanda, eta giroa oraindik ernegatu eta sutu ez denean, gatazka aztertzen ikasi ahalko dugu; sortzen denerako, gatazkari zuzenago aurre egiteko ideia eta proposamen sortzaileak garatuko ditugu. Izan ere, gatazkaren konponbidean topatzen dugun arazoetako bat izaten da berehalako erantzuna eman nahi izatea –“akzio-/erreakzio”-eskema–, eta hori, gainera, erreferenteak falta direnean; orduan, ez dakigu nola egin diezaiokgun aurre indarkeria erabili gabe. Baina, gatazkekin lan egiteko eta konponbide bortitzak ez diren konponbideak garatzeko eremuak sortzen baditugu, errazagoa izango da naturaltasunez konponbideak martxan jartzea, indarkeria eta neurri suntsitzaileak erabili beharrean. Ondorioz, gatazka baten aurrean, geldirik egoten, arazoa aztertzen eta modu eraikitzailean erantzuten ikastea izango da gatazkan hezteko oinarritzko zeregina.



Gaia jorratzeko eremu bat baino gehiago dago: ikasgelan bertan egin dezakegu lana tutoretza arloko zenbait saiotan, jolasgaraian, patioan edota gelan bertan, “gatazken konponbidea eta bitartekaritzaren” inguruan berariazko programa bat garatuz. Programa horren bidez, bidenabar, Elkarbizitza Batzordea mamituko dugu (zenbaitetan batzorde horri izena aldatu diogu eta, Diziplina Batzordea deitu ordez, Elkarbizitza Batzordea izena jarri diogu, haren funtzioak eta bertatik ateratzen diren proposamenak aldatu gabe).

## PROBENTZIOA

Gatazka lehertu baino lehen, gordin-gordin azaldu baino lehen, hau da, krisia iritsi baino lehen gatazkari aurre egin behar zaiola adierazteko, “gatazkaren prebentzioa” da, oro har, erabiltzen den terminoa. Halere, adiera horrek zenbait konotazio oker (negatibo) islatzen ditu: gatazkari ez heltzea, hura sahiestea, azterketa ez egitea, gatazka azalaraztea eragozte, sakoneko sorburuetara ez iristea, etab. Baina gure ustez, arestian aipatu dugun bezala, gatazka sahiestezina da; giza harremanek berezkoa dute eta, garatzeko aukera ematen digun aldetik, positiboa da.

Horregatik guztiagatik ezin dugu eta ez dugu “gatazkaren prebentzioari” buruz hitz egin nahi. Prebentzio terminoa soilik gordeko dugu gerraren, gatazka belikoaren edo antzeko ondorio suntsitzaileak dituzten egoeretarako. Aitzitik, krisialdira iritsi baino lehenagoko esku hartzeko prozesua izendatzeko, J. Burtonek erabilitako **PROBENTZIO** hitzaz baliatuko gara.

Probentzioan oinarritutako esku hartzeko prozesuarekin hiru helburu hauek lortu nahi ditugu:


- Gatazkaren azalpen egokia lortzea, giza dimentsioa barne.
- Gatazkaren sorburua ezabatzeko egin beharreko egitura-aldaketak ezagutzea.
- Giro egokia eta harreman kooperatiboak erraztuko dituzten baldintzak sustatzea, gatazkak lehertzeko arriskua gutxitzeko; horien bidez, desadostasunak eta kontraesanak aztertu eta konpontzen ikasiko dugu, antagoniko bihurtu baino lehen.



Ildo horri jarraituz, hezkuntzan, probentzioak gatazkari hasieratik heltzea dakar, krisialdiko fasera iritsi aurretik. Gatazkari aurre egiten hobeto lagunduko gaituzten estrategia eta trebetasunak landu eta bultzatuko ditugu. Funtsean, edozein desadostasun sortzen den mementotik bertatik abiatuko gara, horri heltzeko oinarriak jarriko dituen prozesua martxan ipiniz.

Beraz, prozesu bati buruz ari gara. Trebetasun bakoitzaren garapena aurreko trebetasunean finkatzen da, eta, eraginkortasuna lortu nahi badugu, nahitaezkoa da modu sistematiko eta planifikatuan lantzea.

Ondorengo eskeman ikus ditzakegu ikasleekin jorratu beharreko gaiak –ezkerraldean– eta irakasleentzako inplikazioak –eskubian–.



Jarraian, ondorengo lerrootan, landu beharreko trebetasunak jorratuk ditugu.

## 1. Estimuan eta konfiantzazko giroan oinarritutako taldea sortu

Badira gizaki orok ditugun funtsezko bi beharrian: identitatea eta talde baten partaide garela sentitzeko beharra. Talde bateko kide garela eta garen bezalakoak onartuak eta baloetsiak garela nabaritu eta igarri nahi dugu. Bazterkeriarik eta integraziorik eza izaten dira maiz gatazkaren hasierako sorburuak.

Elkarrekiko estimua eta konfiantzazko giroa lortzeko, abian jarriko ditugu taldeko partaideek elkar ezagutzea eta integrazioa bultzatuko dituzten jolas eta teknikak. Jolas horien bidez, norberaren burua aurkeztea eta elkar ezagutzea errazteaz gain, talde-sentimentua sortu nahi dugu, eta, horretarako, talde-kohesioa indartzen eta elkartzen gaituena aurkitzen saiatuko gara.

Egingo diren beste zenbait jolas eta teknikek guregan eta ingurukoengan **konfiantzazko giroa** eragitea izango dute helburu. Konfiantza badugu, gatazkari beldurrik gabe aurre egiteko gai izango gara, eta, arazoa sortutakoan, ezkutatu gabe, gatazka mahai gainean jarri, iritzi ezberdinak alderatu eta zuzenean afera izaten ari garen pertsonengana jotzeko gauza izango gara. Konfiantza eta erantzukizuna beti batera landuko ditugu; izan ere, erantzukizunik gabeko konfiantza oso negatiboa den inozokeria bihurtzen da.

Autoestimua eta besteekiko estimua ere landuko ditugu atal honetan. Norbanako eta besteen irudi pertsonala garatu behar dugu, ahuleziak baino gehiago indarguneak nabarmenduz. Lehenengo urteetan (ume-garaian), ingurukoek gurekiko harremanetan islatzen diguten irudiaren arabera eraikitzen dugu autoestimua. Beraz, hezitzaileok berebiziko ardura dugu esku artean: ikasleek beren buruan sinestea edo ez sinestea, gai izateko aukera ematea edo ez ematea, etab. Norberak pertsona izateagatik duen balioaren inguruan lan egiteaz gain, kultura bateko kide gisa dituen balioak ere jorratuko ditugu (norberaren identitatea).

Bat-batekotasunari leku eman gabe, ikasturte hasieran taldea sortzeko eremu bat bilatzea da modu egokia probentziora lantzeko. Hori bultzatzeko jarduerak gelako ikasle talde bakoitzarekin gauza ditzakegu, edota eskola osoan zenbait egun eskainiz. Sarritan, irakasle berriak integrazteko zailtasunak dituztela jakinda, ez da ideia txarra antzeko zerbait egitea irakasle-klaustroan.

## **2. Komunikazioa erraztu**

Gatazkari biolentoa ez den konponbidea ematen ikasteko prozesuan, elkarrizketa tresna nagusietako bat denez, oinarrizkoa da komunikazio ona. Hortaz, komunikazio eraginkorra lortzeko, modu aktibo eta enpatikoan hitz egiten eta entzuten irakatsiko dizkiguten jolas eta teknikak jorratuko ditugu.

**Komunikazio-kanalak** eta berauen garrantzia landuko ditugu. Hitzen bidezko komunikazioa dugu gehien erabiltzen duguna. Mezua transmititzeko modurik zehatzena izanda ere, gogoan izan behar dugu askotan gaizki-ulertu eta nahasketa ugari sor ditzakeela. Beraz, merezi du horri erreparatzea eta behatzea. **Kode komun** bat ezartzen ikasi behar dugu. Ez da ezer ziurtat jo behar; ongi ziurtatu behar da benetan elkar ulertzen dugula, gai berari buruz ari garela eta erabiltzen ditugun hitzak era berean ulertzen ditugula. Horrek guztiak berebiziko munta izango du gatazka egoeretan.

Nahiz eta hitzen bidezko komunikazioak sekulako garrantzia izan, ez dira ahaztu behar, bestalde, hitzez kanpoko komunikazio kanalak. Gogoratu behar da komunikazioak bi esparru dituela, zein baino zein inportanteagoa: batetik, informazioa, hots, mezuaren transmisioa, eta, bestetik, harremana. Hori gogoan, mezu bera oso modu ezberdinetan interpreta daiteke. Maiz, gatazkan hartzen dugun jarreraren atzean, gure emozio eta sentimentuak daude, eta haiek, normalean, hobeto transmititzen ditugu hitzez kanpoko komunikazio-kanalen bidez. Edozein dela ere, funtsezkoa da koherentzia mantentzen ikastea, bai komunikazioaren ohiko bi esparruen artean (informatzailea eta harremanetakoa), bai kanal ezberdinen bidez ari garenean (hitzezkoa eta hitzez kanpoko). Hitzez mezu bat eman, baina hitzez kanpoko komunikazioaren bidez bestelakoa adierazten bada, sinesgarritasuna eta konfiantza galtzen da; mezua ez da iristen, eta nahasmena eta gatazka areagotzen dira.

**Entzute aktiboaren** lanketak ere garrantzi handia du. Kontua ez da bakarrik entzutea, baizik eta parean dugunari sentiaraztea entzuten diogula eta esaten duena axola

zaigula. Hori lortzeko, hitzen bidezko komunikazioa (modu enpatikoan parafraseatuz, egiaztatuz, argitzeko galderak eginez...) zein hitzez kanpoko aukerak (begirada, gorputz-hizkuntza, e.a.) erabil ditzakegu.

Bestalde, komunikazioaren esparrua jorratzeak beste hainbat ikaskuntza sakontzea dakar; besteak beste: hitza eskatu eta egoki erabiltzen ikastea, zuzen hitz egitea, ondokoaren hitza errespetatzea, hitz-txandak ondo banatzeko teknikak abian jartzea, etab.

### **3. Erabakiak kontsentsuz hartu**

lehenago aipatu dugun guztia gauzatu behar da, eta, horretarako, erabaki kontsentsuatuak hartzen ikasi behar dugu, denek parte hartuz, bazterkeriarik gabe eta sexista ez den eran. Bozketatik eta gehiengotik haratago, erabakiak hartzen ikasi behar dugu; partaide orok sentitu behar dute nor bere ideiak adierazteko aukera izan dutela, eta norberaren iritzia, bukaerako erabakian, aintzat hartua izan dela. Erabakiak hartzen ikasteko, jendea aritu eta trebatu behar da, eta horrek eskatzen du ardura eta boterea banatzea eta erabakitzeko eremuak sortzea, prozesuaren ideia ahortzi gabe – ohi bezala–; hau da, hasiera batean erabakitzeko aukera emango dugu gai arinetan, eta, horren ondoren, pixkanaka-pixkanaka gero eta garrantzitsuagoak diren gaietara zabalduko dugu aukera. Gelako asanblada indartu edo berreskuratu behar da, hori baita hitza hartzeko eta aurreko guztia praktikan jartzeko gunea.

### **4. Kooperazioa landu**

Kooperazio-harremanak eraiki behar ditugu. Guztion artean gatazkari nola aurre egin erakutsiko digute, pertzepzio guztiez ohartu eta guztion indarra erabiliz elkarrekin dugun helburua lortzeko ahal izateko.

Kooperazio tekniken bidez, honako hauek dira, besteak beste, lortu nahi diren helburuak:

– Aniztasuna eta ezberdintasuna balioztat hartzea, elkar aberasteko aukera gisa ikusi eta barneratzen laguntzeko.

– Beste aldekoen balioak aurkitzen ikastea eta ikuspegia aldatzea. Ikasleek jabetu behar dute elkarlanean aritzea posible dela; horretarako, beste aldekoak, ezberdinak direlako edo ezberdin pentsatzen dutelako etsaitzat edo oztopotzat hartu beharrean, ikasteko eta erakusteko iturri bihurtuko ditugu.

– Lan, ikasketa eta jolas kooperatiboak garatzea. Horretarako, besteak beste, lan eta ikasketa kooperatiboak sustatu, kirol eta jostailu lehiakorrei alternatibak bilatu eta, norgehiagoka eta sarrietatik haratago, bestelako pizgarri hezitzaileak bultzatuko ditugu.

## **AZTERKETA ETA NEGOZIAZIOA**

Nolanahi ere, probentzioan lan egiteak ez du esan nahi hainbat gatazkak –edo askok– prozesuan aurrera egingo ez dutenik. Horregatik, hain zuzen, bigarren urrats honek (azterketa eta negoziazioa) garrantzi handia du; ikasleek, berauen gatazkak konpondu ahal izateko, gatazka aztertzen ikasi behar dute; ikasi, bestalde, negoziatzen eta irtenbide asegarriak eta sortzaileak bilatzen. Horretarako, oso beharrezkoa da pertsonak, prozesua eta arazoa bereiztea, konponbideak bilatzea eta metodologia.

### **Pertsona-prozesua-arazoa bereizi**

Edozein gatazkatan hiru alderdi agertzen dira: tartean dauden **pertsonak**, **prozesua** (gatazkari heltzeko modua) eta **arazoa** (liskarrean dauden kontrako interes edo beharrianak). Gatazka bat aztertu eta hartan esku-hartzeko, aipatutako hiru alderdiak bereizten eta hainbat modutan jorratzen ikastea izango da hasiera-hasierako lana.

Eskuarki, ez ditugu hiru alderdiak bereizten, eta, oro har, gatazkan hartzen dugun jarreraren arabera (lehiakorra edo sumisoa) jokatzeko hiru alderdietan, eta, hala, jokabide biguna ala jokabide gogorra hartuko dugu. Hartara, jokabide biguna aukeratzen badugu, sentikor agertuko gara pertsonekin; baina, arazoaren aurrean, ahulak izango gara gure interesak defendatzeko. Aldiz, lehiatzea edo erasotzea aukeratzen badugu (jokabide gogorrak), gure interesak aldarrikatzen kementsuak izango gara; baina, bestalde, gogorrak (zakarrak) izango gara liskarraren pertsonekin.

Gatazka pertsonalizatu egiten dugu eta, amankomunean dugun arazoari eraso egin beharrean, pertsonari egiten diogu eraso. Jarrera horrek pertsonen aurkako eraso-dinamikan abiarazten eta murgiltzen gaitu; beste aldekoari eraso egiten diogu, eta, zenbaitetan, arazoa sortu duen gatazka alboratu eta ahaztu egiten da; horrela, energia eta denbora alferrik galtzen dugu, arazoari konponbidea bilatzeko eman beharrean. Beti bestea da arazoa duena, eta ikuspegi horrek oso erraz eramaten gaitu beste honetara: kontua ez da beste pertsona dela arazoa duena, baizik eta **pertsona bera** dela arazoa. Horregatik, oso ohikoak dira gure artean “ikasle gatazkatsu”, “kide gatazkatsu” edo haien gisako aipamenak, eta, elkarbizitza- edo harreman-gatazkek gogoan izan ordez –eta haiekin aritu ordez–, diziplina-arazoei buruz aritzen gara.

Hasieran aipatu hiru alderdiak bereizi egin nahi ditugu, eta gatazkaren aurrean honela saiatuko gara izaten: sentikorrak (arazoa dugun pertsonekin), zuzenak eta parte hartzaileak (arazoari aurre egiteko moduan) eta gogorrak (gure beharrak aldarrikatzeko garaian).

Jarraian, alderdi bakoitzarekin lotuta lantzeko hainbat gai jorratuko ditugu.

## **1. Pertsonak**

Gatazkan, helburu nagusia da beste aldean daudenak pertsona gisa ikustea eta, arazoa konpontze aldera, elkarrekin lan egin dezakegula ikastea. Atal honetan, bereziki landuko ditugu, hurrenez hurren, pertzepzioak, emozio biziak, irudia eta boterea.

### **– Pertzepzioak**

Gatazka orotan, inplikaturako pertsona adina dira pertzepzioak eta ikuspuntuak. Gure jardueretan lortu behar dugu gatazka-aldeek euren pertzepzioa adierazten, beste aldekoa entzuten eta ezagutzeko interesa azaltzen ikastea. Horretarako, hainbat baliabide erabil ditzakegu: ipuin edo istorioetako bertsioak idatzi, kontatu edota antzeztu, rol-jokoekin jardun, historiako liburuekin eta egunkariekin lan egin...

### **– Emozio biziak igarri**

Gatazka lehertzean emozio eta sentimentu ugari azalaratzen dira. Horiek igartzen eta haserre gaudela onartzen ikasteak berebiziko garrantzia du. Sumindura kanporatzeko espazioak bilatu behar ditugu, beste aldekoaren gainera modu suntsitzailean jaurti

gabe. Garrantzizkoa izango da, beraz, haserrea antzematea eta garbi izatea, sumindura baretu eta haserrea kanporatu arte, ez dela momentu egokia izango gatazkari aurre egiteko.

#### – Irudia

Edozein gatazkatan partaideen irudia, izena eta ospea zalantzan jartzen dira. Hori oso kontuan hartu behar da gatazkaren azterketa egiterakoan, eta, batik bat, esku hartzeko unean. Horrenbestez, aldeek sentitu behar dute haien irudia onik ateratzen dela; osterantzean, litekeena da alde batek konponbidea ez onartzea, hura zuzena izanda ere.

#### – Boterea

Giza-harreman guztietan botere desorekak izaten dira. Gatazkan ere desoreka horiek agerian daude, eta, oso nabarmenak direnean, ia-ia ezinezkoa izango da gatazkari konponbidea ematea. Hori sahiesteko, aurretik botere-maila orekatu behar da, eta, beraz, behean zapalduta dagoenari erakutsi behar zaio boterea berreskuratzen (ahalduntzea) eta haren gainean dagoenari –gehiegi duenari– boterea kentzen (desobedientzia).

Hori lortze aldera, zenbait gai jorratu behar dira: autoestimua, norbere buruarenganako konfiantza, asertibitatea –norberaren iritzi eta jarreraren alde egiteko ahalmena– eta, guztien gainetik, **ahalduntze prozesua**; azkeneko horren bitartez, gure boterearen oinarriak eta eragiteko gaitasunak aurkituko ditugu. Gatazka batean ez badakigu boterea orekatzen, ezin dira eskubideak eta beharrak aldarrikatu. Beraz, oreka lortzen ez erakustek sumisioan eta konformismoan hezteak dakar.

Bestalde, egoera batean goian dagoenaren botere-oinarriak zein diren jakitea garrantzitsua da; izan ere, sarritan, boterea azpian dagoenaren zapalkuntzan, obedientzian eta menderatzean oinarrituta izaten baita. Horregatik, gatazkan eta gatazkarako heziketa **desobedientziarako heziketa** da. Hitz horiek beldur handia eragiten dute, autoritatea galtzearen beldurra, batez ere. Aitzitik, kolokan dagoena ez da autoritatea, autoritarismoa baizik, eta bi kontzeptu horiek, ia beti, aurkakoak dira. Kontua ez da itsu-itsuan ez obeditzea; kontua da egiten dugunaz eta egitearen arrazoiak kontziente izatea eta horri uko egin ahal izatea, zergatiak argudiatuz, aukerak eskainiz eta desobedientziaren ardurak eta ondorioak gure gain hartuz.

Erantzukizunerako hezi behar dugu, eta irakatsi Luther King-ek zioen bezala: “Gaizki dagoenarekin kolaboratzeak ongi dagoenarekin kolaboratzeak bezain agerikoa izan behar du”.

## **2. Prozesua**

Prozesuak ezartzen ikasi behar da. Bi aldeek jakin behar dute zein den gatazkari ekiteko modu egokia, biek adierazteko aukera izan dezaten eta biek ala biek onartzeko moduko konponbideak bila ditzaten. Hartara, ikasi behar da:

**A. Ikasi komunikaziorako dinamika eta jarrera suntsitzaileak kontrolatzen.** Saihestu salaketak, irainak, orokortzeak, iraganean gertatutakora itzultzea, beste norbaiten ahotik jardutea... “Zuregan” ardaztutako mezutik “niregan” ardaztutakora igaro behar dugu. Normalean, besteari buruz hitz egiten dugu, eta, gehienetan, gaizki edo era ezkorrean; beraz, geure burua ondoen ezagutzen duguna gu geu izanik, hitz egin dezagun lehenengo pertsonan, eta azaldu sentimenduak, zerk ematen digun mina, nola eta zergatik. Horrek guztiak, nahiz eta erraza iruditu, ez da hala, eta, erraza ez denez, ikaste-prozesu bat eskatzen du; ariketak egiten edota esan beharrekoa idatziz hasiko gara ikasten (ikusitako lan koadernoak).

**B. Ohitu bururatutako prozesuak aztertzen,** ondo eta gaizki egindakoaz ikasteko. Gatazkaren analisi-mapa egin eta bertan jaso gatazka zerk eragin duen, nork hartu duten parte, zein den haien boterea eta eragiteko ahalmena, nola eman den prozesua, saiatu diren konponbideak... Hau da, gatazkaren lehena eta oraina testuinguruan jartzeak informazio ugari emango digu esku hartzeko.

**C. Sortu kontsentsuzko prozesuak.** Horien bidez, alde guztiek adierazteko aukera izango dute, beharrak agertu eta asetzetzearen. Gatazkari nola helduko diogun azalduko dituzten arauak kontsentsuatu behar ditugu, eta zer egingo dugun eta zer ez dugun egingo aipatu. Halere, gatazkari aurre egiteko arauak funtsezkoak dira, eta, are funtsezkoagoa, arau horiek guztion artean lantzea. Hala, talde osoaren iritziak jasoko dira, eta haiek betetzea eta betearaztea samurragoa izango zaie.



## Gatazka baten krokis laburra

### **Pertsonak:**

- Nor dira gatazkan murgilduta daudenak eta nola inplikatu dira?
- Zein dira haien botere edota eraginaren oinarriak?
- Zein da gatazkareriko pertzepzioa eta nola eragiten die?

### **Prozesua:**

- Aztertu orain arte jarraitutako prozesua. Horretarako galderak:
  - Zerk eragin zuen gatazka?
  - Zein izan dira gatazka areagotu duten alderdiak?
  - Izan al da baretzeko eragilerik?
  - Zein dira saiatu diren konponbideak eta horiekin lortutako emaitzak?
- Nola gauzatzen ari dira komunikazioa, distortsioak, estereotipoak, zurrumurruek, informazio okerra, etab.?

### **Arazoa:**

- Deskribatu gatazkaren funtsa. Horretarako galdera eta puntuak:
  - Zein dira alde bakoitzak hartu duen jarreraren azpiko interesak eta beharrak?
  - Nork bere buru asetzeko kontuan hartu beharreko oinarrizko giza beharrak
  - Balio-ezberdintasunak
- Zerrendatu konpondu beharreko arazoak.
- Aztertu diren eta erabil daitezkeen baliabideak. Horra aztertzekeo puntuak:
  - Eraikitzaileak izan daitezkeen pertsonak (bitartekariak)
  - Komunak edo, bederen, baztertzaitzaileak ez diren interes eta beharrak
  - Egiteko prest dauden eskaintzak

### **3. Arazoa(k)**

Atal honetan, alde batetik, jarrerak edo iritziak eta, bestetik, interesak edo beharrak jorratu beharko dituzte. Jarrerak edo iritziak dira arazoa konpontzeko irtenbideak; interesak eta beharrak, aldiz, gatazkaren sorburu eta jatorria. Beharretan –bereziki– jarri behar dugu arreta; behar horiek zein diren ezagutu behar dugu, eta haiek hierarkizatzen eta adierazten ikasi. Ez dugu jarri behar gogoia gure jarreretan; haratago joan behar dugu negoziazioan, eta beharretan oinarritu. Horrela, konponbideen eremua zabalduko zaigu. Esaterako, jarreretatik abiatzen bagara, bi konpobidetara mugatu beharko dugu negoziazioa, alde bakoitzak nahi duen konponbidera, hain zuzen; jarrera horiek izaten dira, normalki, elkarrengandik urrutien dauden irtenbideak, amankomunean ezer ere ez dutenak. Beharretatik abiatzen bagara, ostera, konponbide-sorta irekiko zaigu, eta aukera hobeak izango ditugu. Pausoak gatazkaren funtsara bideratuko ditugunez, kontrako interesez gain, amankomunean ditugun bestelako interes eta beharrak aurkitu ahal izango ditugu. Guztion artean ditugun interes edota behar horiek akordio baten oinarriak izango dira, eta haiek, gainera, baikortasun-puntua emango diete konponbidea bilatzeko aukerei.

Zailtasun nagusia honako hau da: zuzenean arazoa konpondu nahi izatea, jatorriaren sustraiak sakon aztertu gabe. Medikuntzan dugu adibide garbia: diagnosia egiteko, gaixoa aztertu egin behar da lehenik, eta gero etorriko da preskizioa. Guk berdin jokatu behar dugu.

Gatazkaren muinean dauden arazoak aurkitzea da bukaerako helburua, arazo horiek baitira konpondu behar direnak.

## **Konpobideak bilatu**

Atal honetan, heziketa-prozesuak garatzea izango da garrantzitsuena. Prozesu horiek konponbideak bilatzeko sormena eta irudimena bultzatu behar dituzte, kontuan harturik bi aldeek behar edota interesak asetu behar direla. Horretarako, zaindu beharreko bi printzipio aipatu behar dira: batetik, konponbide-aukerak zabaltzeko, eskura ditugun baliabide guztiei erreparatu behar diegu, eta, bestetik, konpobideak sortzeko eta akordiora iristeko faseak bereizi behar dira.

Konponbideak sortzeko fasean ez dira mugak jarri behar, ez eta eztabadairako tokirik utzi behar ere. Nahiz eta ezinezkoa iruditu, zenbat eta ideia gehiago izan, orduan eta konponbidea aurkitzeko aukera hobea izango dugu. Maiz, eginezin eta ezinezkoa den ideia batek beste ideia bikain eta egingarri batera hurbil gaitzake.

Akordiorako fasean, berriz, aurkeztutako proposamenak laburbiltzeko ahalegina egin beharko da; zehaztu egin behar dira zein diren gauzatu daitezkeenak eta argitu aurrera nola eraman daitezkeen, ezen azken finean bi aldeak asetzeko proposamen baliogarriari heldu behar baitzaie. Fase honetan akordio zehatzak hartu behar dira, erantzukizun zehatzekin; ongi lotu behar da, bestalde, beteko direla ziurtatzeko modua.

## Metodologia

Orain arte aipatu diren esparruak lantzeko, bisualizazio-teknikak izango dira baliabide nagusiak (rol- eta simulazio-jokoak, antzerkiak, txotxongiloak, etab.). Teknika horien ezaugarriari esker, gatazka bisualizatzeko aukera dugu, eta honako gai hauek landuko ditugu:

- **Arlo emozionala:** arrazoiaren eremua kontuan hartzeaz gain, eremu emozionala ere hartuko dugu kontuan; sarritan, gatazkan, sentimenduak dira gure pertzepzioan eta jarreran garrantzi handiena hartzen duten osagaiak.
- **Distantsia:** gatazkarekiko tartea hartuko dugu, urrundu egingo gara gatazkatik; hartara, pertzeptzio ezberdinak errazago eta suhartasun gutxiagoz hautemango ditugu.
- **Sentsibilizazioa:** bestearen tokian kokatuko gara, gatazkaren ikuspegi orokorragoa izateko eta bestearen pertzepzioak ulertzeko; hala, gainera, bestearekiko empatia garatu ahal izango dugu eta lagungarria izango zaigu ez soilik alde aurretik sentitzen duena ulertzeko, baita bi aldekoentzat asegarriak izan daitezkeen konponbideak bilatzeko ere.
- **Sakontasuna:** azaleko itxuratik haratago, gatazkak aztertzen lagunduko digute; horrela, ezkutuko sorburuak eta arrazoiak aztertuko ditugu, eta gatazkaren muinean (funtsean) asebate gabe dauden interes eta beharrak aurkituko .

– **Konponbideekin saiakerak egin:** balizko konponbideak abiatuko ditugu; laborategi txiki batean bezala, hainbat konponbiderekin probak egin ahal izango ditugu; talde/ikastalde osoaren gaitasunez ahalik eta gehien baliatuz, elkarlanean gatazkak aztertu, eta konponbideak bilatuko ditugu; horretarako, sormena garatu behar da; konponbidea bat eta bakarra izan daitekeela pentsatzeko daukagun joera gainditu behar dugu; bestela, gehienetan ohiko konponbidera –betikora– joko dugu, askotan saiatuta ere emaitza kaxkarrak eman dituen konponbidera, hain zuzen ere.

Metodologia hori bat dator Bake Hezkuntzan *ikuspegi sozio-afektiboa* esaten diogun kontzeptuarekin; zabaldu nahi ditugun balioekin koherentea da eta indar egiten du ez soilik edukietan, baita jarrera eta balioetan ere: ludikoa, parte-hartzailea, kooperatiboa eta sozio-afektiboa, hausnarketa eta jarrera kritikoa bultzatuko dituen metodologia.

**Ikuspegi sozio-afektiboaren** bidez, landu nahi dugun egoera “gure baitan bizi ahal izango dugu” eta, hartara, zuzeneko eskarmentu horrekin ulertuko dugu lantzen ari garen gatazka, eta sakontzeko grina piztuko zaigu. Azken finean, jarrera enpatikoa garatuko dugu, gure balio eta portaeretan aldaketak eragingo ditu horrek, eta errealitatea (ingurua) eraldatzeko norbanakako atxikimendura bultzatuko gaitu.

## BITARTEKARITZA

Egun, bitartekaritza modan dago, eta AEBn sortutako asmakizun modernoa balitz bezala aurkezten da. Hala ere, gogoeta horretan ahaztu egiten da bitartekaritzak jatorri anitzak dituela. Kultura eta tradizio askotan erabilera horren adibide ugari topatzen dugu, eta guztietan, nolabait, bitartekaritzaren egitekoa arautu egiten dute; gogoan izan behar dugu, gainera, aspalditik jorratzen ari dela Bake Hezkuntzako eta gatazken konponbide ez-bortitzeko programetan.

Ahaztu egiten da bitartekaritza ez dela gatazkari aurre egiteko modu bakarra, eta ez luke lehena ere izan behar. Berez, gatazka konpontzeko prozesuan dugun baliabide bat da eta haren erabilera egokia izango da ondoren aipatzen diren bi kasuetan:

- Aldeek beren artean gatazka konpontzeko aukera guztiak agortu dituztenean.
- Bortizkeria edota inkomunikazio-egoera gogorra eta gaindiezina denean.

Egoera horietan, aldeek kanpoko pertsona baten edo batuen esku-hartzea eska dezakete bidezko prozesu bat eraikitzen laguntzeko, komunikazioa berreskuratzeke, gatazkari aurre egin eta konponbidea emateko eremu eta giro egokia sortzeko. Pertsona horri bitartekari deritzogu. Aldeak izango dira azkeneko erabakia hartuko dutenak, ez bitartekaria.

Azken bolada honetan, bitartekaritza aipatzen da kanpoko eragile batek gatazka batean esku hartzen duen guztietan, hala bitartekari komertziala izan nola kultura arteko gatazka batean itzultzailea izan. Halere, kanpoko pertsona baten edo gehiagoren edozein parte-hartze ezin dugu bitartekari hartu. Bitartekaritzan aritzen denaren eginbehar nagusia prozesua eta harremanak zaintzea da; gatazkaren edukia eta akordioa aldean esku utzi behar da; bitartekariak lortu behar du hartutako akordioa argia, zehatza eta bi aldeetatik ondo ulertua izatea, “besterik ez”.

Horren haritik, interesgarria da ikasle eta irakasleen artean bitartekaritzarako formazioa zabaltzea. Ikasketa hori baliotsua izango da, ez soilik gatazketan bitartekari-lana burutzeko, baizik eta norberak –behar izanez gero– bitartekaritza naturaltasun handiagoarekin eskatzeko eta egin beharrekoa errazteko.

## **Neutraltasuna dela eta ez dela**

Neutraltasunarena da bitartekaritzaren gaiaren inguruan agertzen den auzi nagusietako bat. Asko dira bitartekari izateko neutrala izan behar duela diotenak. Nire iritziz, aldiz, neutraltasunik ez dago, eta, gainera, ez da positiboa. Egia bada ere ezin dela bitartekaritza egin bi aldeetako bat defendatzen denean, ez da nahastu behar jarrera hori neutral izatearen jarrerarekin. Berez, bitartekariak prozesuaren alde egin behar du apustu; maiz, neutraltasuna aldarrikatzen duten jarrerak bitartekaritza baliabide gisa hartu ordez, bukaerako helburu gisa hartzen dute. Bukaerako helburua, aitzitik, bi aldean gutxieneko beharrak aseko dituzten konponbideak aurkitzea da, bidezkoak eta ahal den neurrian, harremana berreskuratzea lortzea; “nik irabazi, zuk irabazi” moduko konponbideak, alegia. Gakoa ez da bakarrik akordiora heltzea; akordioak arestian aipatu ditugun ezaugarriak ere bete behar ditu.

Giza harremanetan beti, eta are gehiago gatazka-egoeretan, botere-desorekak izaten dira. Horiek oso nabarmenak direnean, neutraltasunerako jarrerak desoreka betikotu eta ia kasu guztietan bidezkoa izango ez den akordiora bideratuko gaitu, boterea duenaren alde. Horrenbestez, bitartekariak desoreka-egoera hori aldeei ulertarazi eta ikusarazi behar die; aldeek bukaerako helburua zein den jakin behar dute, eta ulertu aldeen arteko botere-maila orekatzea edota beraiek oreka dezaten lortzea ere badela bitartekariaren lana.

## Bitartekaritza-prozesua

Bitartekaritza-prozesu batek izan ditzakeen faseak izendatzeko, J. Paul Lederach-ek erabilitako adierak hartuko ditugu, ezen bitartekaritza formalagoetan erabiltzen direnak baino sinpleagoak eta ezagunagoak baitira. Halere, aipatuko ditugun faseak ez dira hitzez hitz era zurrunean hartu behar; alderantziz, eguneroko egoeretan prest egon behar dugu prozesuaren fasetan aurrera eta atzera jotzeko behin eta berriz, konponbiderako prozesuaren eta murgilduta dauden pertsonen beharrak zein diren; egin beharrekoaz eta lortu beharreko helburuez jabetzeko faseak lagungarriak izan behar dute, inola ere ez oztopo.

### A. SARRERA

Bitartekaritza-prozesuarekin hasteko, gutxienez, honako hiru gai hauek zehaztu behar dira: onarpena, informazioaren bilketa eta prozesuaren arauak finkatzea eta onartzea.

1. **Onarpena.** Bi aldeek (ikasleria, irakasleria edo ikasleria/irakasleria) bitartekaritza (gatazkari konponbidea emateko bide gisa) eta horretan lagunduko duten pertsona edo pertsonak onartu behar dituzte; aurrerago aipatuko ditugu horretarako dauden era askotariko aukerak. Bitartekariari dagokionez, bi aldeek onarpena jaso ahal izateko hainbat arlotan trebatua izan beharko du, hala nola entzuteko eta konfiantza eta enpatia garatzeko gaitasunetan.

2. **Informazioaren bilketa.** Bitartekaritza egin behar duenak gatazkari buruz eta bertan nahasiak dauden pertsonen buruzko informazioa bilduko du. Ondoren, jorratu behar

diren gaiak zerrendatuko ditu eta horiei heltzeko proposamen bat luzatuko die aldeei, haien onarpena jasotzeko.

Maiz, hasierako bi pauso horiek alde bakoitzarekin bereiz jorratu behar dira. Aurrez-aurreko bitartekaritza hasteko momentua lehenago edo geroago izatea hainbat faktorek baldintzatzen dute, nola hala aldeen arteko indarkeria maila, botere-desoreka, beldurra...

**3. Prozesuaren arauak finkatu eta onartu.** Bi aldeek bitartekaritza-prozesuaren arauak oso argi izan behar dituzte eta onartu egin behar dituzte; hori bitartekariaren ardura izango da eta honela zehaztu daitezke:

- Bitartekariaren betebeharrak definitu eta mugatu; zer egin dezakeen eta zer ez zehaztu. Ezin du inoren alde egin, ezin dio inori arrazoia eman, ezin ditu konponbideak eman, konfidentzialtasuna bermatu behar du, akordioa argia lorotzen saiatu behar du...
- Bitartekaritza-prozesuan zer onartzen den eta zer ez finkatuko du: elkarri entzun, erasorik ez egin, hitzen txandak errespetatu...
- Prozesua non, noiz eta nola garatuko den adostu behar du; bitartekariak aldeei konfiantza eta segurtasuna eskainiko dien giro atsegina lortu eta bermatu behar du.

## **B. KONTA IEZADAZU**

Nork bere historia kontatuko du; nork bere pertzepzioak, emozioak eta sentimentuak agertu behar ditu. Bi aldeek barruak hustu ditzatela lortu behar da, baina zama-kentze hori parean dagoenari eraso gabe egiten dela kontrolatu behar da. Fase honetan denbora asko eta pazientzia eduki behar da. Oso ohikoa da inguru-minguru ibiltzea eta behin eta berriro kontu berdinak errepikatzea sakoneko eta mingarriak diren aferak azaleratu baino lehen; hartara, birak eta itzulinguruak onartu beharko dira. Behar den denbora hartu ezean, gerta daiteke hainbat kontu ez azaltzea eta hori, etengabe, prozesuan aurrera jarraitzeko oztopo bihurtuko da.

Elkarri entzutea, informazio-trukaketa, sentimentuak adieraztea, akordiorako baliagarriak izan daitezkeen aukerak hautatzea, etab. dira fase honetako helburu nagusiak. Beraz, bitartekariaren funtsezko kezkek dira: komunikazio egokia lortzea,

adierazitakoa ondo ulertua izan dadin erraztea eta aldeen arteko harremana eta elkarrekiko errespetua zaintzea.

### **C. GURE BURUA KOKATU**

Fase honetan, arestian aipatzen genuen norberaren historiatic GURE historia eraikitzen igaro behar da. Oraindik ez da konponbideak proposatzeko unea, baina analisi komun bat lortu behar da, eta han argitu behar da gatazka zertan datzan eta zein diren jatorrizko arazoak; analisi horren ondorioz, elkarrekin agenda bat adostuko da, eta han landu eta konpondu beharreko gaiak argi geratu behar dira.

Iraganari buruz hitz egiteari utzi eta aurrera jotzeko momentua da, etorkizuna eraikitzen oinarriak finkatzen hasteko unea. Jarrerak alde batera utzi eta behar edota interesetan ardaztu behar da eginkizuna. Horretarako, lagungarria izan daiteke bitartekariak bere buruari galdetzea ea zer den aldeek aldarrikatzen duten jarreraren atzean dagoena; birformulazioa ere baliabide egokia izan daiteke.

### **D. KONPONDU**

Sormena garatzeko unea da, bi aldeen arazoei konponbideak bilatzeko eta proposatzeko unea, bien beharrak ase eginda.

Aldeek bilatu eta sortu behar dituzte konponbideak eta haiek guztiek izango dute azken hitza. Bitartekariak sormena garatzen lagunduko die (ideia-jasak edota sormena askatzen duten teknikak erabiliz), eta agertzen diren proposamen guztiak berak jasoko ditu, bat bera ere ahaztu gabe. Proposamenak egiteko unea dela eta ez erabakitzeo gogoratzea lagungarria izan daiteke sormena garatzeko eta haratago joateko, norberaren jarreretan geratu gabe.

### **E. AKORDIOA**

Bi aldeak asebeteko dituzten akordioetara heltzea da fase honetako helburu nagusia. Akordioek bi aldeak neurri handian –baina ez derrigorrean modu eta neurri berean– ase behar dituzte eta errealista izan behar dute. Bitartekariak bermatu behar du akordioak baldintza horiek betetzen dituela, bi aldeek berdin ulertzen dutela eta



lortutakoa nahikotzat jotzen dutela. Akordioa betetzeko, gogoan hartuko du, halaber, ongi lotu behar direla gauzatu beharreko alde praktikoak eta eratzukizun zehatzak (nork, nola, noiz...)

## **F. AKORDIOEN EGIAZTATZEA ETA EBALUAZIOA**

Bitartekaritza lanak betetzen ari garenean, gatazka zenbat eta garrantzitsuagoa izan, hainbat eta funtsezkoagoa izango da akordioak eta haiekin lotutako konpromisoak egiaztatzeke epeak adostea eta horretarako erabiliko den prozedura argitu eta aipatzea. Orobat, ezin dugu ahaztu gatazka konpontzen saiatzeaz gain geure burua ere hezten ari garela; hartara, ebaluazioa garrantzitsua da, bereziki bitartekariarentzat edo bitartekari taldearentzat. Horrela, prozesuaren jardunean, ondo eta gaizki eginetatik ikasi ahal izango dugu.

## **Bitartekaritzarako eremu hezitzaileak**

Bitartekaritza eremu hezitzaileetan gauzatzeari dagokionez, hainbat prozedura aipa ditzakegu, bi eratan banaturik: a) nola egiten den eta b) nork egiten duen kontuan harturik.

**Egiten den modua gogoan**, osagarriak izan daitezkeen bi modu nabarmenduko ditugu:

**1. Bat-batekoa edo bitartekaritza informala.** Eskolan guztiek gai hauen inguruan formazioa jaso dutenez, aldeak gatazkei irtenbidea ematen saiatuko dira. Baina konpotzeko gai sentitzen ez diren bakoitzean, zuzenean eta adosturik hirugarren pertsonaren laguntza eskatzea daukate. Hala egiten denean, bitartekaritza informala dugu.

**2. Bitartekaritza formala, arautua edo bitartekaritzarako taldeak.** Eskolan bitartekaritzarako taldeak eratzea da lehenengo pausoa. Guztiek ezagutu behar dute talde horien kokapena, eta garbi izan behar dute laguntza eska diezaieketela behar dutenean. Taldeetan, eskolako estamentu guztiak ordezkatuak egon behar dute: bai irakasleria, bai ikasleria, bai irakasle ez diren langile nahiz gurasoak. Gainera, interesgarria da taldeetako partaideak

txandakatzea. Horrela, batetik, botere-egitura berrien sorrera saihestuko dugu, eta, bestetik, balio pedagogikoa indartuko dugu: bitartekaria izan dena, gatazka batean bitartekaritza behar duenean, zereginak erraztuko ditu.

Bi moduak aldi berean gara daitezke, eta biak osagarriak izan. Eguneroko eta ohiko gatazketan lehenengo bidean arituko gara eta bide formala gatazka sakonagoetarako –gaiagatik edota inplikaturako pertsonengatik– utziko dugu.

Orain arte aipaturako banaketa bitartekaritza egiteko moduarekin lotuta dago. Jarraian, aldiz, bitartekaritza egiten duten pertsonak hartuko ditugu kontuan. Bi dira ohikoenak:

**A. Berdinen arteko bitartekaritza.** Bitartekaria eta aldeak estamentu bereko partaide dira. Gatazka konpontzeko, hasierako urratsetan zail suerta daitekeen proposamena da; baina, gure ustez, lortu beharreko eredia da. Hala, nahiz eta bitartekaritza “informala” izan, partaideak prestatuago egongo dira gatazkei aurre egiteko.

**B. Helduen bitartekaritza.** Bitartekaritza lanak egiten dituen irakaslea da. Behar hori tutore diren irakasleek bete dezakete, baina errazago eta koherenteago da irakasle guztiek horren ardura hartzea. Eta hartara jo behar dugu.

Ikasleriaren formazioa gauzatzeko, hainbat aukera ditugu. Horietako bat da berriazko eta borondatezko ikastaroak antolatzea. Batxilergoan, irakasle eta ikasleak elkarrekin jaso dezakete formazioa. Beste aukera bat da tutoretzako zenbait saio erabiltzea ikasleen formaziorako, edo DBHn hautazko gisa eskaintzea.

# BALIABIDEAK: BIBLIOGRAFIK ETA WEBGUNEAK

## Bibliografia

### 1) EDUPAZ BILDUMA

- Seminario de Educación para la Paz de la APDH:  
*Educar para la Paz: una propuesta posible.*
- CASCÓN, Paco; BERISTAIN, Carlos: *La alternativa del juego I.*
- Seminario de Educación para la Paz de la APDH: *La alternativa del juego II.*
- Seminario de Educación para la Paz de la APDH: *U.D. Sistema sexo-género.*
- Seminario de Educación para la Paz de la APDH: *U.D. Derechos Humanos.*
- Seminario de Educación para la Paz de la APDH: *Manos cooperativas.*
- Yaleko Unibertsitatea. Bideo: *"la clase dividida"*.
- Bernako adierazpena. *Tercermundopoly.*
- Visquem la diversitat. *Vivamos la diversidad.*
- Sodepau. *Guia para el consumo crítico.*
- LEDERACH, John Paul: *El abecé de la paz y los conflictos. Educar para la Paz.*
- JUDSON, Stephanie: *Aprendiendo a resolver conflictos.*
- FERNÁNDEZ, I.; VILLOSLADA, E.; FUNES, S.: *Conflicto en el centro escolar. El modelo de alumno ayudante como estrategia de intervención educativa.*

**Los libros de la Catarata, Madril, <http://www.sedupaz.org>**

2) BASTIDA, Ana; CASCÓN, Paco; GRASA, Rafael: *Monográfico "Educar en el conflicto"*. Cuadernos de Pedagogía, enero 2000. Los libros de la catarata, Madril, 2000.

3) BASTIDA, Ana; CASCÓN, Paco; GRASA, Rafael: *Hazañas bélicas*. Octaedro-Intermon, Barcelona, 1999.

4) ZENBAITEN ARTEAN: *Educar para la paz y el conflicto*. Biblioteca básica del profesorado. CISSPRAXIS Ed., Barcelona, 2000.

5) CASCON, Paco; PAPANIMITRIU, Greta: *Resolución no violenta de los conflictos*. El perro sin Mecate, Mexico, 2000.

6) JARES, X.: *Educar para la paz. Su teoría y su práctica*. Popular Ed., Madril, 2000.

7) BRANDONI, F.: *Mediación escolar. Propuestas, reflexiones y experiencias*. Paidós, Buenos Aires, 1999.

8) CASAMAYOR, G.: *Cómo dar respuesta a los conflictos. La disciplina en la enseñanza secundaria*. Graó, Barcelona, 1998.

9) CORNELIUS, F.; FAIRE, S.: *Tú ganas, yo gano. Cómo resolver los conflictos creativamente y disfrutar con las soluciones*. Gaia ediciones, Madrid, 1995.

Inglés: *Everyone Can Win: how to Resolve Conflict*. Simon & Schuster, Australia.

10) GIRARD, K.; KOCH, S.: *Resolución de conflictos en las escuelas. Manual para educadores*. Ediciones Granica, Barcelona, 1997.

Inglés: *Conflict Resolution in the Schools: A manual for educators*. Jossey-Bass Education Series.

11) JUDSON, S.: *Aprendiendo a resolver conflictos. Manual de Educación para la Paz y la Noviolencia*. Los libros de la Catarata, Edupaz Bilduma 8. zenb., Madrid, 2000.

Inglés: *A Manual on Nonviolence and Children*.

12) ROZENBLUM DE HOROWITZ, S.: *Mediación en la escuela. Resolución de conflictos en el ámbito educativo (Bitartekaritza eskolan)*. AIQUE, Buenos Aires, 1998.

13) ZENBAITEN ARTEAN: *Mediación de conflictos en instituciones educativas. Manual para la formación de mediadores (Bitartekaritza hezkuntzan)*. Narcea, Madrid, 2000.

14) PORRO, B.: *La resolución de conflictos en el aula*. Paidós, Buenos Aires, 1999.

Inglés: *Talk it Out: Conflict Resolution in the Elementary Classroom*. Ass for Supervision & Curriculum Development.

15) CRARY, E.: *Crecer sin peleas. Cómo enseñar a los niños a resolver conflictos con inteligencia emocional*. RBA, Integral-eko liburuak, Barcelona, 1998.

Inglés: *I'm Mad (Dealing With Feelings)*. Parenting Pr.

16) JOHNSON, D.; JOHNSON, R.: *Cómo reducir la violencia en las escuelas*. Paidós, Paidós Educador Bilduma, Buenos Aires, 1999.

Inglés: *Reducing School Violence Through Conflict Resolution*. Assn for Supervision & Curriculum Development.

17) JOHNSON, D.; JOHNSON, R.; HOLUBEC, E.: *El aprendizaje cooperativo en el aula*. Paidós, Paidós Educador Bilduma, Buenos Aires, 1999.

Ingelesez: *Cooperative Learning in the Classroom*. Assn for Supervision & Curriculum Development.

18) J. BODINE, Richard; K. CRAWFORD, Donna: *The Handbook of Conflict Resolution Education: A Guide To Building Quality Programs in Schools*. Jossey Bass Education Series.

19) PERISTEIN, Ruth; THRALL, Gloria: *Ready-To-Use Conflict Resolution Activities for Secondary Students*. Center for applied Research in Education.

20) COHEN, Richar: *Students Resolving Conflict: Peer Mediation in Schools*. Goodbye Pub Co.

21) SCHRUMPF, Fred: *Peer Mediation: Conflict Resolution in Schools: Student manual*. Research Press.

22) TEOLIS, Beth: *Ready-To-Use Conflict- Resolution Activities for Elementary Students: Over 100 Step-by-Step Lessons and Illustrated Activities That Give Grades K-6 st*. Center for Applied Research in Education.

23) KREIDLER, J: *Creative Conflict Resolution: More than 200 Activities for Keeping Peace in the Classroom*. Good Year Education Series.

## **Webguneak**

### **Gaztelera:**

1) <http://www.pangea.org/edualter> Edualter: Red de Recursos Educativos de Educación para la Paz, el Desarrollo y la Interculturalidad: base de datos.

2) <http://www.fuhem.es/CIP/EDUCA> Educa en la Red: Recursos educativos de educación para el desarrollo.

3) <http://www.sgep.org> SEP: Seminario Gallego de Educación para la Paz.

- 4) <http://www.pangea.org/sedupaz> Sedupaz: Seminario de Educación para la Paz de la Asociación Pro-Derechos Humanos.
- 5) <http://www.pangea.org/iearn> IEARN
- 6) <http://www.eip-cifedhop.org> EIP: Asociación Mundial "Escuela Instrumento de Paz".
- 7) <http://www-inter-mediacion.com> Intermediación.
- 8) <http://www.sarenet.es/gernikag> Gernika Gogoratuz.
- 9) <http://www.mundolatino.org/i/politica/negointe.htm> Luis Dallanegra Pedraza.

### **Ingelesez:**

- 10) <http://www.copri.dk/ipra/ipra.html> IPRA: Inrenational Peace Research Association.
- 11) <http://www.people4peace.com/> People of Peace Project.
- 12) <http://www.ConflictRes.org> Conflict Resolution Center International Inc (CRCII).
- 13) <http://members.aol.com/pforpeace/cr/> People for Peace Conflict Resolution Center.
- 14) <http://www.esrnational.org/about-rccp.html> Resolving Conflict Creatively Program (Educators for Social Responsability).
- 15) <http://www.geocities.com/Athens/8945> Dimostenis's Page.
- 16) <http://www.clcrc.com/> Cooperative Learning Conflict Resolution Center.
- 17) <http://nirc.ca/> Interction for Conflict Resolution.
- 18) <http://crenet.org> National Institute of Dispute Resolution (NIDR y CREnet).
- 19) <http://www.nccre.org/> National Center for Conflict Resolution Education.
- 20) <http://www.tc.columbia.edu/~academic/icccr/> International Center for Cooperation and Conflict Resolution.
- 21) <http://www.mennonitecc.ca/mcc/programs/mediation.html> Mediation and Conflict Resolution.

22) [www.peaceculture.org](http://www.peaceculture.org) is worth visiting. Lots of documents and articles on the history of war and peace and UNESCO and UN actions.

23) <http://www.gn.apc.org/peacenews>: news on peace.

24) <http://www.san.beck.org/NAH1-Nonviolence.html/>: about a handbook for non violence.

25) <http://www.nonviolence.org/links.htm>: links related non-violence.

**Frantsesez:**

26) <http://www.universitedepaix.org/> Université de Paix (Namour- Belgika).